

HAZIAK LORATZEN

æek



Euskal Herrian bizi zarena : adi-adi !

Zuk Euskal Herrian bizi zarenak eta herria maite duzunak « Eusko » ezagutzen duzu ?

Jakin behar duzu Eusko, euskal moneta, onartzen duten denda eta elkarteek tokiko programa eta proiektu batean parte hartzen dutela eta euskararen aldeko hizarmena izenpetzen ere.

Zuk, Eusko erabiltzaileak, eusko erabiliz, elkarte bat laguntzen duzu, trukutzen dituzun euskoen ehuneko hirua hautatu duzun elkarteari isurtzen delako. Hala nola, jende batzuek Txirrind'Ola elkarte laguntzea hautatu duten. Jakin behar duzu ere, urte has-tapenetik pirripitaren tailer hori eusko aldagune bat dela. Alde ba-

tetik, Txirrind'Olari kidetza eusko ordain diezaiokezu. Beste aldetik, harat hurbiltzen ahal zira zure euroak euskotan aldatzeko.

Txirrind'Ola tokiko garapen iraukorraren aktore da, pirripita zaharrak errekuiperatzen (etxe edo hondakinetatik) eta konpontzen dituelako. Kide bakoitzak ere bere bizikleta konpont dezake Baionan kokatzen den tailer honetan. Ondorioz, hondarkinak guttitzen dira eta gainera hemengo jendeei ematen zaie lana.

Bukatzeko, beha egon zaitez, laster, haien webgunea elebiduna izanen delako.

Txirrind'Olaren gisara, Euskoa ere tokian-tokiko garapen iraukorraren alde ari da. Paperezko Eusko ordaintzeaz gain, gaur, kontu numerikoa ere idek eta erabil dezakezu !

Molde honetan, zuk ere tokiko garapen iraukorra lagunt dezakezu !

Christelle eta Sahy, AEKko ikasleak

Euskara-Frantsesa sakelako hiztegia

Bretainian kokatzen da **Yoran Embanner** argitaletxea, Fouesnant herrian. 2003an sortu zen. Bretainiari buruzko argitalpenak plazaratzen ditu nagusiki, historia, natura, ondarea, eta ere saiakera politikoak, hala nola estaturik gabeko nazioez. Bretoizalea da argitaletxe hori, gisa hortan bertze hizkuntza gutiatsieri artoski idekirik egonez. Eta hain zuzen, hizkuntza mehatxatuz agertzen ditu sakelako hiztegi elebidunak, bretainiera, galesera, katalana, errumaniera, albaniera, hungariera, kroaziera eta beste hizkuntza batzuri idekitzeko. Azkenik, euskara-frantsesa/frantsesa-euskara hiztegia dauku plazaratu, 9000ko bat hitz eta itzulpenekin, **Erramun Baxok** adituak eginik euskarazko itzulpenak. Usaian erabiltzen den hizkuntza da, gaur egungo mun-

SAKELAKO HIZTEGIA

DICO DE POCHE

EUSKARA / FRANTSESA




FRANÇAIS / BASQUE

Y

YORAN

sunak emanak zaizkigu, frantsez. Bigarren partearen hastapenean aldiz (frantsesa-euskara), euskaraz zaizkigu argitasunak emanak frantses hizkuntzaz. 308 orrialdeko hiztegi ttipi hori, prak-



Lauren bestan

Apirilaren 1ean, ez ospatu baizik eta eskola Arbonako Bil Tokian, haur, erakasle, b... nek elgarrekin egun go... dugu.

Ikusgarri polit bat p... ekologiar buruz, dar...

Euskal/Herria

Elkar argitaletxe ilustrazio eta lehiaketa

Iragan berri da E... letxeak antolatutako eta ipuin lehiaketare... ekitaldia, Donostian... dira aurkeztuak izar... tze ikaragarria. Huna... **Ilustrazioak:** A mail... Arana (Abadiño), 2... lio Lekuona (Hond... mailan, 1. Mikel Kor... petegi (Beasain), 2... dos Urkiola (Tolosa)

Beasaingoa

